

Patxi Azparren Olaizola

MALTZAGAKO MAHAIAREN IDAZKARITZAKO KIDEA

Maquiavelokumeak

Zenbait eragile politiko eta ekonomikorentzat definiziorik eza da markorik egokiena. Dena zehazteke dagoen bitartean, indarrean dagoen statusak dakartzan onurak goza baitituzakete.

Urteetan baliatu zuten sistemak porrot egin zuenetik (1998tik) aldaketa eragozteko eta atzeratzeko hamaika saiakera egin dituzte.

Maquiavelok idatzi zuen: "Denak berdin jarrai dezan aldaketak egin behar direla, itxura berriak erabiliz, oreka zaharrari eutsi ahal izateko". Maquiaveloren ikasle zintzo ugari dago, nonbait. Egun, aldaketa atzerazina agerian geratzen ari delarik, oreka zaharrari eusteko ahaleginetan jarraitzen dute.

Txiki Benegasen hitzek nire arreta lortu dute horien artean. Berak aipatutako hitzak, geroago Patxi Lopezek bere egin zituelako. Mezua oso argia da: status juridiko politikoaren moldaketa bati ekiteko prest daude, aldez aurretik sistema aldaezina izango dela berrmatuko dituzten aurrebaldintzak onartzen badizkiegu.

PSOEk kide hauek plazaratutako aurrebaldintzak ezagutzeak merezi du, oso adierazgarriak dira eta. Besteak beste, hauek dira esanguratsuenak: Espainiako Konstituzioa onartzea, akordio "zeharkatzailea" izatea, Gasteizko Legebiltzarreko legebiltzarkideen bi herenen babesa eskuratzeta. Hots, Hegoaldeko mendebaldeko hiru herrialdeetan gutxiengoan dauden espainiar



DANI BLANCO

nazionalisten beto eskubidea behin betiko lege bihurtzea. Teologia konstituzionala, alegia.

Bidegurutze baten aitzinean gaude eta PSOEk badaki, publikoki onartu nahi ez badu ere, Euskal Herrian dugun marko juridiko politikoa erabat agortuta dagoela. Hori dela eta, Espainiako Gobernua berreskuratu zutenetik, egoerari neurria hartu nahi izan dio. Egindako neurketen artean, Loiolako prozesua izan da saiakerarik sakonena eta zinikoena. PSOEk ahal bezain laster PP

zegoen toki berara itzuliko zela jakin baitzekien.

Gure bizi-iraupena eta garapena ziurtatzeko eta gatazkari konponbide iraunkorra eman diezaiogun, gehien-go berria behar dugu.

Gertaera erabakigarriak ditugu begi aurrean. Indar sozialek, sindikalek eta politikoez azkeneko urte hauetan aukeratu zuten kokapena aldatzear dago. Maquiavelokumeak dagoenari eusten ahaleginduko dira, baina norberaren interes gairik herri-proiektua lehenesteko gairik bagara, oreka zaharrarenak egin du.

Maltzagaraino, bakoitzak bere motxilak gordetzen duen altxortxo daramalarik, norberak bere txirringaz joan behar du zama bihurtu dena alboratuz. Tropela iritsitakoan, mendatea zeharkatzeko adina indar izango dugu eta gailurrean, helmugan, paisaia berriak eta gozoagoak ikusteko parada izango dugu. ■

« Maquiavelokumeak dagoenari

eusten ahaleginduko dira, baina

norberaren interes gairik

herri-proiektua lehenesteko gairik

bagara, oreka zaharrarenak

egin du

»

TXANDAN

Castillo Suarez

Iruzurra



Denok nahiko genuke erakargarriak izan. Maitagarriak. Denok nahi dugu maita gaitzaten, eta, ahal bada, guk geuk egiten dugun indar berberarekin. Denok nahi dugu ingurukoek, gauzak diren bezalakoak ikusi orde, guk nahi dugun bezala ikusi ditzaten. Nahiko genukeen bezala ikusi gaitzaten. Baina dena denbora kontua da. Ez zara zuk uste zenuen bezain interesgarria; askotan, gainera, ez zara interesgarria ere. Iruzur egiten aritu zarela ohartu dira ingurukoak. Iruzur egin

duzula ohartu zara zu zeu. Iruzur handia. Alabaina, kezkatzen zaituzten gauzak ez dira handiak. Gauza txikiak omen dira. Lotsa ematen dizu lankideek zure autoa ikusteak dozena bat urte dituelako. Beldur ematen dizu zinemara bakarrik joateak; nahiago duzu etxean geratu bakarrik, aspertuta eta triste. Ez duzu bikinia jartzeko ausardiarik herriko igerilekuetara joateko. Ez duzu bikinia erosteko adorerik, nahiago duzulako zeure burua ispiluan ez ikusi. Gauza txikiak omen dira guztiak... baina, aldi berean, ikaragarri handiak. ■